



2021 **Zurekin aurrera**

MEMORIA KORPORATIBOA



Datu gehiagorako kontsulta
ezazu Informazio Ez
Finantzarioaren Egoera (IEFE)



Aurkibidea

1. EROSKI KULTURA	8
2. Zurekin konprometitutako negozio eredua	11
3. EROSKI konpromisua	16
3.1. Konpromisoa kalitatearekin eta osasunarekin	18
3.1.1. Produktuaren nutrizio hobekuntza	18
3.1.2. Nutrizio orekari buruzko informazioa /Nutri Score	19
3.1.3. EROSKI CONSUMER informazio proiektua	20
3.1.4. Ohitura osasungarriak haurtzarotik hasita	21
3.2. Konpromisoa ingurumen jasangarritasunarekin	22
3.2.1. EROSKI 2050: karbono neutritasuna	22
3.2.2. Konpromisoa jatorritik: produktu jasangarriagoak	23
Ontzi onena produktu onenarentzat	24
3.2.3. Hondakinen kudeaketa zirkularra	25
3.3. Konpromisoa tokiko ingurunearekin	26
3.3.1. Tokiko ingurunearekin batera hazten gara	26
3.3.2. Konpromisoa ekoizleekin	27
3.3.3. Bertako produktuari laguntzea eta sustatzea	28
3.3.4. Gure ingurunearen mesedetan	29
3.4. Konpromisoa gizartearekin	30
3.4.1. Gizarte ekarpena	30
3.4.2. Zentimo solidarioak ekimenaren lehen urtea	31
3.4.3. 2022ko deialdi solidarioa	32
4. EROSKI pertsonak: konpromisorako kultura	33
4.1. Talentua garatzea	36
4.2. Berdintasuna eta aniztasuna	37
4.3. Kontziliazioa	37
5. Finantza informazioa	38





Agustín Markaide, EROSKIko Lehendakaria

Etap berri bat hasten da, EROSKI proiektua indartzeko eta harekin batera aurrera egiteko.

2021. urtean, 2020an bezala, planak ez dira izan jarduteko gida baliagarriak. Eta badirudi 2022an ere profil hori mantenduko dela. Kudeatzaileen eta profesionalen trebetasunak elkarren segidan izandako aldaketei erantzun behar izan die, eta askotan aldaketa horiek hamabi hilabete lehenago gertatu zirenen alderantzizkoak izan dira, eta esan behar dut: EROSKI lortutako emaitza oso positiboa izan da, bai lorpen propioetan, bai gizarteari egindako ekarpenean.

Izan ere, EROSKI garai baten amaierara iritsi da, eta beste bat hasten ari da. Ekonomia egoera etengabe finkatzen joan da, eta 2021eko ekitaldiak azken hamarkadaren emaitza gordina onenetako bat eman du. Bestalde, finantza egoerak ere hobera egin du, eta ekitaldiaren amaierako balantzeak 1.000 milioi eurotik beherako banku zorra erakusten du. Etapa berri bati ekin diogu, begirada berrituta eta jarduteko aukera gehiagorekin. Etapa honetan gure jardueraren oinarriak indartu nahi ditugu, eta irmotasunez egin nahi dugu aurrera.

2021: pandemia osteko normaltasunerantz

Elikagaien negozioarentzat, 2021a normaltasunerako bidean joan da; normaltasun bat egungo gizarteak irrikaz eskuratu nahi duena. Pandemiaren eraginpean oraindik ere, gure salmentek puntu bat baino zertxobait gehiago egin dute hobera, 2019. urtearekin alderatuta. Aurtengo ekitaldian, elikagaien txikizkako banaketa enpresek beste sektore batzuei 2020an hartu genien kuota itzuli diegu eta, beraz, merkatua murriztu dela egiaztatzen dugu. Hala ere, ikusten ari ginen zenbait praktika eta joera finkatu ditugu, hala nola online kanalaren hazkundea edo tokiko produktuaren aldeko apustua.

Etorkizuna, ordea, ziurgabea da.

Europa barruan, Ukrainako gerraren hasiera tragedia bat da. Gerrak milioika pertsonari eragingo die zuzen-zuenean, eta adi egon beharko dugu beharrezkoa den arreta eta laguntza emateko. Gainera, inflazioarako joerak, gerraren aurretik nabariak zirenak jada, areagotzen ari dira, eta elikagaien balio kateko kide guztiei eta, azken batean, biztanleei eragingo die. Inflazioak kontsumitzailearengan dituen ondorioak arintzen saiatu behar dugu, gure barne prozesuetan eraginkortasuna hobetuz. Alabaina, erantzukizun bat dugu ere aurreko katebegiekin, enprekin eta ustiapenekin. Haiek ere inflazioaren presiopean daude, eta salmenta prezioetan hura islatzeko aukera izan behar dute, beren jarduerari eutsi ahal izateko. Balio katean lortuko dugun oreka berriak jokoan dauden premia guztiei erantzun beharko die, besteak beste, herrialarren beharrei, haien erosteko ahalmena mehatxupean egongo baita eta ondo egiten ez dutenen aurrean erreakzionatuko baitute.

Hedapena erritmoa hartzen ari da

Denda berrien bidez hedatzeko erritmoa aktiboagoa izaten hasi da: hamabost denda propio ireki edo handitu ditugu, eta eraberritze lanak egin ditugu 141 dendatan. Guztiak Espainiako iparraldean, hori baita lehentasunezko jardueraren eremua, Galiziatik hasita Balear Uhartetaraino hedatzen den zerrenda zabala. Eta jasangarritasun estandar gorenak aplikatuta guztietan.

Horrez gain, 65 frankizia berri gehitu ditugu, eta horien artean, muturreko hurbiltasunaren formatua nabarmen igo da.

EP Corporate Group Supratuc-en bazkide gisa sartu izanak Balearretan eta Katalunian proiektuaren etorkizuna finkatzea ahalbidetzen digu, eta hori islatu egingo da merkataritza jardueran, datozen hilabeteetan.

Elikadura jasangarriago eta osasungarriago baterantz

Osasuna, ingurumena eta gizarte konpromisoa, horra gure hiru ardatzak, eta horiek gabe oso zaila izango litzateke ulertzea EROSKI enpresa nola egiten dugun.

2018. urtean gure bide orria finkatu genuenetik ingurune osasungarriago eta jasangarriago batera iristeko gure 10 konpromisoen bidez, urte bakoitza erronka bat da. Azken hamabi hilabete hauetan egiaztatzen dugunez, gure bezeroen erosketak ohiturek hobera egin dute Nutri-Score etiketa sartu dugunetik. Gure produktuaren nutrizioa hobetzea funtsezkoa da, ohitura osasungarriagoak bultzatzeko. Hori dela eta, gure marka propioko produktu guztietan palma gantza kendu dugu, gure elikadura hornitzaileekin izandako lankidetzari ariketa bikain batean.

Dakizueenez, osasuna babestea gai nagusia izan da azken 2 urte hauetan. Errealitate horrek, ordea, ez ditu ezkutatu orain indarrez berreskuratzeko ari diren beste erronka batzuk. Esate baterako, deskarbonizazioa; EROSKI horren aldeko konpromisoa hartu du, 2050. urtean karbono isurietan neutroa izango dela berretsi baitu.

Gizarte eztabaida eta eraikuntza gure bazkide bezeroekin partekatzen dugun xedea da, eta, horren harira, EROSKI ekarpen esplizituak egiten ditu Garapen Jasangarriako Helburuak lortzeko. Horrela bakarrik uler daiteke 2022ko Elkartasun Plana prestatzen eman diguten erantzuna. 12.400 bezerok baino gehiagok lagundu digute gizarte kausak aukeratzen. Aurtengo jarrera aktiboa izango dugu kausa horietan. Bezeroen eta EROSKIren ekarpenei esker, 13 milioi euro bideratu ditugu hainbat gizarte kausatara, desberdintasunari aurre egiteko, beharra dutenei laguntzeko eta janari xahuketa saihesteko.

EROSKIko pertsonen konpromisoa itzela

EROSKIko langileek garai zaila eta zorrotza bizitu dugu. EROSKIko pertsonen kalitatez eta samurtasunez erantzun dugu gizartearen aurrean. Bezeroek erabat eskertu dute, eta harro sentitzen gara talde zoragarri honetako kide izateaz.

Gure proiektu korporatiboan indartu egin da urte hauetan: bazkide berriak sartu dira, eta datozen bost urteetan 2000 sartuko dira. Espiritu berberaz ariko dira guztiak herrialarren beharren zerbitzura.

Garai berria. Lidergo berriak

Etapa berri bat hasi dugu lidergo berriekin. Rosa Carabel EROSKIko Zuzendari Nagusiari egokitu zaio etapa berria lideratzeko erantzukizuna, gure oinarriak indartzeko eta proiektuaren helburuak lortzen aurrera egiteko. Zalantzarik gabe, haren zuzendaritzapean, erakundearen arimak enpresa proiektu kooperatibo honen misioaren eta estrategiaren zerbitzura jarraituko du, proiektuaren xedea izanik kontsumitzaileen osasuna hobetzea, bai eta gure ekintzen eta balio kate osoaren jasangarritasuna ere.



Leire Mugerza, EROSKIko Kontseilu Errektoreko Lehendakaria

Iritsi gara. Esaldi horrek esanahi ugari gordetzen ditu garai ziurgabe hauetan. Ziurgabetasun horren erroak ez daude, ordea, barne elementuetan, kanpoko arrazoietan baizik: pandemia bat, inflazioa, gerra bat Europan... Ziurgabetasun horrek gure lehentasunak birpentsatzera derrigortzen gaitu. Gizartearen egonezina eta sufrimendua ez dira arrotzak enpresentzat. Konponbidearen zati aktiboa izan behar dugu.

Mondragon Korporazioak lema bat erabiltzen du kooperatibok ere geure egiten duguna: Humanity at work. Inoiz ez da aplikatu azken bi urte hauetan bezain ongi. EROSKI egiten dugun pertsonen onena eman dugu, garai honetan gizartearen ondoan egoteko. Tentsioarekin, baina arimaz. Iritsi gara. Edo iristen ari gara, adi erreparatuko baitiogu Ukrainako gerraren norabideari eta ekintzak ere abian jarriko baititugu hark gizakiengan dituen ondorioak arintzeko.

Beharra zuten milaka pertsonengana iritsi gara.

2021. urtean pertsona askoz gehiagorengana iritsi gara, milaka ekarpen txikiren bidez. Ia magikoa da halako gizarte kapilaritate maila batera iristea: EROSKItik eta gure bezeroen bidez, 435.000 pertsona baino gehiagori lagundu diegu 260 gizarte erakunderen bitartez.

Magia horrek ahalbidetu du, besteak beste, Elkartasun Zentimoak programa, non 14 milioi dohaintza baino gehiago lortu ditugun. Ez hori bakarrik: 12.400 bezerok gure baliabideak bideratzeko gizarte kausak aukeratu dituzte, 2021. urteko azken hiruhilekoan haiekin batera egin dugun entzumen aktiboko lanari esker.

Horrez gain, beste programa batzuen bidez, hala nola Zero Hondakin programa, elikagaien xahuketa gutxitzen laguntzen dugu, eta lankidetzan aritzen gara Elikagaien Bankuekin eta antzeko ehunka erakunderekin, gizarte bidezkoago eta jasangarriago bat eraikitzen.

Hobeto informatutako kontsumitzaile batengana iritsi gara

Kontsumitzailea gure izateko arrazoi da, kontsumo kooperatiba bat garen neurrian. Erabat konbentzita gaude: hobeto prestatu eta informatutako kontsumitzaile batek erabaki hobeak hartuko ditu, eta horiek eragin positiboa izango dute haren osasunean. Hori geneukan buruan 2019an Espainiako banaketan Nutri-Score etiketa sartu zuen lehen enpresa izan ginenean. Ekimen hura duela hamarkada bat baino gehiago abian jarritako Elikadura Semaforoari gehitu zitzaion. Uztailako Consumer aldizkarian argitaratutako azterketaren datuek argi erakusten dute ematen dugun informazioak eragin positiboa duela kontsumitzailearengan. Hona ere iritsi gara.

Partekatutako ahaleginari esker.

2021. urtea, gainera, etapa berri baten hasiera izan da. Hasiera pentsaezin bat gizarte kolektibo osoaren inplikaziorik gabe eta, batez ere, haien sakrifizio, lan eta dedikaziorik gabe. Aurretik hartu ditugun erabakiek taldea eraldatzea ahalbidetu digute gaur. Haiei esker iritsi gara.

Eta orain aurrera egin behar dugu, etapa berri hau indartzeko

Badakigu kooperatibismoaren indarra askoren elkartasunean oinarritzen dela eta pertsonen ahaleginaz, irmotasunez eta ezagutzaz elikatzen dela. Indibidualtasun bikainak batzen dira, eta horrek indarrak biderkatzea eragiten du. Esperimentatu dugu. EROSKI bezalako proiektu batean, aldea, lider on bat izatean ez ezik, lider kooperatibo on bat izatean datza, eta hori ere partekatu dugu. Eskerrak ematen dizkiogu Agustín Markaideri, enpresa egiteko modu bat partekatzeagatik; banaketa enpresa bat, helburua etengabe egokitzen duena.

Etaparen berria begirada berriarekin, Rosa Carabelekin, hasten dugu, proiektu kooperatibo honen Misioa bere horretan mantenduz. Aurrera egiten jarraituko dugu kontsumitzaileen osasunaren alde eta gure inguruaren jasangarritasunaren alde; gure EROSKI proiektuaren alde, zurekin.

Zurekin 2021. urte osoan.

02
Otsaila

> Zuzendaritza kontseilu berria

Rosa Carabel, Zuzendari Nagusi gisa, eta Javier Amezaga, Zuzendari Korporatibo gisa, eta horiekin batera, José Ramón Anduaga, Ekonomia eta Finantza Zuzendaria; Alberto Madariaga, Eragiketen Zuzendaria; Enrique Monzonis, Berrikuntza, Eraldaketa Digitala eta IKTen Zuzendaria; eta Javier España, Garapen Zuzendaria. Zuzendaritza Kontseilua osatzen dute Lehendakariak, Agustín Markaidek; Eva Ugartek, Marketin Estrategikoaren eta Bezeroaren Zuzendariak; Iñigo Eizaguirrek, Gizarte arloko Zuzendariak eta Beatriz Santosek, Zuzendari Komertzialak.



Agustín Markaide



Rosa Carabel



José Ramón Anduaga



Alberto Madariaga



Enrique Monzonis




Javier España




Eva Ugarte



Iñigo Eizaguirre



Beatriz Santos



Javier Amezaga

> 1.000.000 maskara eman zaizkie

10.000 familiari baino gehiagori, 70 erakunde publiko eta sozialen bidez.

03
Martxo

> Kontsumo Handian egindako Berrikuntzaren Behatokiaren Berrikuntza Saria

Cerdá Institutuak marka propioko produktuen ingurumen adierazpenak aitortu ditu.



04
Apirila

> Bazkide berria Katalunian eta Balear Uharteetan

EP Bidco Supratuc2020n bazkide gisa sartzeko akordioa, Balear Uharte eta Kataluniarako.

05
Maiatza

> Planta berria Jundizen

Jundizeko planta inauguratu da, jasangarriagoa eta Leed Gold ziurtagiria duena. Horren bidez, produktu freskoen plataformen mapa birdiseinatu dugu Espainiako iparraldean.



Zurekin 2021. urte osoan.

06
Ekaina

> 2021eko Batzar Nagusia

EROSKik bere proiektu kooperatiboa indartu du, eta iragarri du 2.000 langile bazkide berri sartuko direla datozen 5 urteetan.



07
Uztaila

> Neutraltasun konpromisoa 2050erako


EROSKik 2050ean karbono isurietan neutroa izateko konpromisoaren berri eman du.

2050 Neutroak isurietan



> Tokiko produktuak

Akordio bat sinatu da Aragoiko Gobernuarekin, tokiko produktuak sustatzeko.



08
Abuztua

> Entzute solidarioa

Deialdi solidarioa egin zaie gizarte erakundeei, batetik, proiektuak aurkezteko, eta bezeroei, bestetik, proiektuak aukeratzeko.



09
Iraila

> Konprometituak elikadura osasungarriarekin



EROSKik palmako gantza kendu du marka propioko produktu guztietatik, eta horren ordez, aukera osasungarriagoak erabili ditu.

10
Urria

> Elkartasuna La Palmarekin

EROSKik kanpaina bat egin du La Palmako Cumbre Vieja sumendiaren erupzioak kaltetutako pertsonen laguntzeko.



11
Azaroa

> Gure hazkundera biziartzen dugu



EROSKI hazten ari da iparraldean, eta dendak inauguratu ditu Galizian, Euskadin, Balear Uharteetan eta Katalunian.



12
Abendua

> Bezeroari emanak

Erakundera denden zerbitzura jarri da Omikronek eragindako bajei aurre egiteko eta bezeroei zerbitzua bermatzeko.

01
Urtarrila

> Konpromiso soziala

EROSKik Espainiako Haur Obesitateari buruzko Txostena aurkeztu du.



2021eko zenbakiak



5.116

milioi euroko fakturazioa



17

milioi janari eman dira dohaintzan,
Zero Hondakin programaren bidez



4.541

milioi euroko salmenta garbi,
banaketan



43.918

tona hondakin birziklatuta edo
balorizatuta, ekonomia zirkularra-
ren printzipioei jarraikiz



1.646

establezimendu



9.800

hornitzaile



77

irekiera berri



2.152

tokiko ekoizle txiki



6+

milioi bezero bazkide



21.574

tokiko produktu



28.353

langile



2.700

produktu glutenik gabe gure
dendetan



3.627

enplegu zenbatetsi frankizietan



Sariak

- Urteko Merkataritza Saria
- Bezeroaren Arreta
- Frankiziaren Jasangarritasunaren Saria (CAPRABO)



% 74

emakumeek betetako
erantzukizun lanpostuak



22.906

produktuen analisi eta auditoret-
za dendetan, plataformetan eta
hornitzaileen ekoizpen plantetan



550.093

kontsulta artatu ditu gure
Bezeroaren Arreta Zerbitzuak



126.839

ikasle prestatu dira, Elikadura eta
Ohitura Osasungarriak hezkuntza
programan



152.000

bezero bazkide, beren ideiak
eman dituztenak gure eskaintza
komertziala eta gure dendak
hobetzeko



% 100 Nutri-Score

marka propioan implementatuta



EROSKI Kultura

1 EROSKI kultura

EROSKI kulturak gidatzen ditu gure ekintzak, erantzukizuna eta zintzotasuna oinarri hartuta, interesa duten alde guztien eskariei erantzuteko eta guztien itxaropenak betetzeko.



Misioa

Kontsumo handiko produktuak eta zerbitzuak banatzen dituen talde bat gara, erregimen kooperatiboan eratuta dagoena, eta gure bereizgarriak honako hauek izatea nahi dugu:

- 1 Taldea osatzen duten pertsonen konpromiso eta inplikazio handia.
- 2 Etengabe berritzen ari diren denda abegikorak eta osasunkarriak izatea.
- 3 Aberastasun gehiago sortzeko irabaziak lortzea eta irabazi horiek elkartasun erregimenean banatzea.
- 4 Estrategian konpromiso irmo bat sartzea, kontsumitzaileen osasun eta ongizatearen alde eta gizartearen garapen jasangarriaren alde.



Ikuspegia

Erosketak egiteko kontsumitzaileen denda gogokoena izatea.



Balioak

- 1 **Kooperazioa:**
Langileak protagonista dira EROSKIIn. Ez bakarrik beren jabetzakoa den kooperatiban, baita gainerako sozietateetan ere, erakundearekiko konpromisoaren bidez.
- 2 **Partaidetza:**
Kontsumitzaileen iritzia txertatzen dugu kooperatibaren estrategian, haien partaidetzaren bidez eta gure bezeroei era aktiboan entzunda.
- 3 **Gizarte erantzukizuna:**
Jarduten dugun komunitatearen ongizateari laguntzen diogu, eta, aberastasunaren banaketa solidarioaren bitartez, haren garapen sozialean, kulturean eta ekonomikoan eragiten dugu.
- 4 **Berrikuntza:**
Gure ustez, ezinbestekoa da gure jarduera eremuetan etengabe berrikuntzak egitea bai enpresak aurrera egin dezan, bai gu egokitu gaitezen gure jarduerak gizartean eta kontsumitzaileengan eragiten dituen itxaropenetara.
- 5 **Konpromisoa:**
Gure egunerokoan aintzat hartzen dugu kontsumitzaileen osasunaren eta segurtasunaren defentsa, produktu sano, seguru eta osasungarrien eskaintza eginez eta informazio garden, baliagarri eta oso bat emanez. Era berean, gure jarduerak ingurumenean duen eragin ezkorra gutxitzeko lan egiten dugu.



COVID-19aren kudeaketa

COVID-19ak erronkak planteatu dizkigu egunez egun 2021. urte osoan. Hori dela eta, dendetan segurtasun neurriak indartu ditugu, **EROSKiko langileentzat lan ingurune seguru bat ziurtatzeko eta gure bezeroentzat establezimendu seguruak bermatzeko.**

Pandemiaren bilakaerak segurtasun neurriak berriz egokitzeko aukera eman digu, gure langileen lana eta gure bezeroen jarduera errazte aldera. Omikron aldaera berria, ordea, erronka bat izan zen, kutsatzeko ahalmen

handia izanik, inpaktu handia izan baitzuen iritsi zenean. Horren eraginez, lantaldeak eta aurrez aurreko arreta indartu behar izan genituen, bezeroei eskainitako tratua eta zerbitzua ez kaltetzeko. Errespetatuz betiere EROSKI egiten dugun pertsonen osasuna, bai eta segurtasun eta prebentzio neurriak ere.

“ 2021a ere urte zaila izan da, baina ongi bideratu dugu, taldearen indarrari eta erresilientziari esker. ”

“ Ikasi dugu egoera zailei aurre egiteko gai garela, lanaren eta egokitzeko gaitasunaren bidez. EROSKIn elkartasuna barrurantz eta kanporantz ematen da: seigarren olatuan, erakundeak dendetan jarri zuen arreta guztia. ”



Rosa Carabel
Zuzendari Nagusia



Iñigo Eizaguirre
Gizarte Arloko
Zuzendaria

2

Zurekin konprometitutako negozio eredua

2 Zurekin konprometitutako negozio eredua

Denden sarea

Formatu askotako gure negozio ereduak bezeroen beharrei erantzuteko aukera ematen digu, entseinen aukera zabal baten bidez. Aukera horren barruan hipermerkatuak, supermerkatuak, bidaia agentziak, aisialdiko dendak, gasolindegia eta optikak sartzen dira.

Gure dinamismoari esker, merkataritza sareak, zeina dibertsifikatua eta eraginkorra baita, 1,18 milioi m²-ko azalera fisikoa du, 1.646 establezimendutan banatuta. Hala, gure presentzia areagotu ahal izan dugu

estatuko lurralde osoan, eta gure helburu nagusietako bat bete dugu: haztea eta Espainiako iparraldean finkatzea, gure erreferentzia eremuan, hain zuzen:

77 denda berri

Frankiziak

65
inaugurazio

577
supermerkatu

Establezimenduen banaketa fisikoa autonomia erkidegotan



Lakua-Arriaga
Vitoria-Gasteiz
(Araba)




Sitges
(Bartzelona)



Inca (Mallorca)



A Barca (Pontevedra)



● > 90 establezimendu
● > 30 establezimendu
● < 30 establezimendu

Entseinak eta negozioak

	Entseina	2021		
		Guztira	Propioak	Frankiziak
Elkagaien negozioak	EROSKI (Hipermerkatuak)	36	36	0
	EROSKI City ¹	599	309	290
	CAPRABO	296	210	86
	EROSKI Center	166	164	2
	ALIPROX	106	0	106
	FAMILIA	75	75	0
	ONDA	48	0	48
	RAPID	46	1	45
	Cash&Carry	18	18	0
Dibertsifikazio negozioak	Gasolindegia	38	38	0
	Optikak	11	11	0
	Bidaia agentziak	130	106	24
	FORUM SPORT kirol materialeko dendak	68	67	1
	Online dendak	9	9	0

Gure marka propioan produktuaren bitartez bezeroaren zerbitzura jarritako gure balio guztiak islatzen dira. Kalitatea eta prezio ona. Berrikuntza eta aukera zabala.


GUZTIRA
1.646
Dendak

GUZTIRA
1.044
Propioak

GUZTIRA
602
Frankiziak

*EROSKI/Cityren kopuruak barne hartzen ditu MERCA establezimenduak; aurreko urteetan bereizita eman izan dira.

Marka	Erreferentzien kopurua	Markaren deskribapena
 EROSKI SeleQTia	219	Onetan onena. Kalitate bikaina prezio onean
 EROSKI	2.164	Kalitate-prezio eskaintza onena
 EROSKI Natur	430	Zapore arduratsua
 EROSKI Bio eta EROSKI Eco	95	Ziurtagiri ekologikoa duen marka berria
 belle	424	Kosmetika, higiena eta zaintza pertsonala, parabenorik eta triklosanik gabe
 EROSKI basic	214	Eguneroko produktuak preziorik onenean
 Oniritzia	1.146	Kalitatezko arropa eta oinetakoak prezio onean
 Romester	79	Kalitatezko kirol ekipamendua prezio onean
 ecron	41	Kalitatezko elektronika eta etxetresnak preziorik onenean



Gure posizio ommikanala indartzen dugu

2021. urtean beste urrats bat egin dugu Taldearen estrategia ommikanala sendotzeko bidean; bereziki, EROSKI Online kanalean. Espainiako estatuko gizartearen izan den ohitura aldaketak bultzada eman dio ingurune digitalari, eta horrek sendotu egin du gure online negozioa, **emaitzak bikoiztuta pandemia aurreko zifrei dagokienez.**



8M Milioi bisita
2021ean



Capraboacasa: 1 orduko entrega tarteak eta 7:00 am-tik aurrera Bartzelonako metropoli eremuko bezeroentzat

“ Bezeroek gure zerbitzua probatu dute eta gurekin gelditu dira, zerbitzuagatik eta ematen dizkiegun erraztasunengatik. ”



Olga Eguizabal,
EROSKiko Online
Negozioaren
Arduraduna



EROSKI app

EROSKik eraldaketa digitalaren alde eginiko apustuaren parte gisa, indartu eta hobetu egin dugu gure aplikazio mugikorraren erabilgarritasuna, online erosketa prozesua azkartuz eta abantaila esklusiboak emanez erabiltzaileei. 2021ean:



%154 Erabiltzaile kopurua handitzea



700.000 Erabiltzaile berriak

Ommikanalitatea zabalitzen

Ingurune digitaletik harago, bezeroek apustu egin dute gurekin harremanetan jartzeko beste modu batzuen alde. EROSKik ommikanalitatearen alorrean duen eskaintzak beste elementu batzuk barne hartzen ditu. Hala nola: Click&Drive, Click&Collect eta kutxatila adimendunak.

Click&drive

9 Puntu

Click&collect

11 Puntu

Kutxatila adimendunak

3

Urteko Merkataritza Sariak

Bosgarren urtez jarraian, Urteko WebShop saria jaso dugu Online Supermerkatuen kategorian, Urteko Merkataritza Sarietan. Era berean, kontsumitzaileek proposamen onena garela iritzi diote kategoria hauetan: Hurbileko supermerkatuak, eta Bezeroaren gogobetetzea.

Eraginkortasuna eragiketetan

EROSKiren helburua da eraginkortasuna handitzea prozesuetan eta logistikan, gure bezeroek aurrez dezaten. Hori lortzeko tresnak dira berrikuntza eta teknologiaren hobekuntza.

Logistika eraginkorra

EROSKIn hobetzen ari gara balio katearen eraginkortasuna, plataforma eta garraio sare doitu eta lehiakor baten bidez, irtenbide aurreratuekin, gure lehiakortasuna areagotzeko. Produktu galkorretarako logistikaren modernizazioari gehitu behar zaizkio ingurumenarekin errespetutsuagoak diren instalazioak, teknologiaren gaurkotzea hotz ganbera eraginkorragoen bidez, eta plataforman lan egiten duen taldearen erosotasuna eta lan segurtasuna areagotzea. Jundizeko plataforma berriaren eta Capraboren ZAL plataformaren kasuak dira, diseinatu direnak kontuan hartuz nazioarteko Leed Gold ingurumen ziurtagiri ezagunaren arauak eta baldintzak.



33 Taldeko saltoki guztiak hornitzeko plataforma logistikoak

baino gehiago

337.000 m²

biltegi azaleran. Hortik banatzen ditugu

1.000.000

kutxa inguru egunero.

“Gure helburua izan da prozesuen eraginkortasuna hobetzea balio katean: salmenta puntuetan, horniduran eta logistikan, eta kontsumoen optimizazioan.”



Alberto Madariaga
EROSKIko
Eragiketen Zuzendaria



Berrikuntza, saltoki gogokoena izateko

EROSKlrentzat, berrikuntzak berekin dakar bezeroarekiko harremana hobetzea, eta horrek balio behar du hura gogobetetzeko eta haren saltoki gogokoena izateko.

“EROSKIn egunero berritzen dugu, bezero bakoitzari eskaintzeko proposamen erakargarri eta pertsonalizatuena. Oinarritzen gara datuaren kudeaketan eta adimen artifizialean, erabaki eraginkorragoak hartzeko eta erosketaren esperientzia hobetzeko.”



Enrique Monzonis,
EROSKIko Berrikuntza,
Eraldaketa Digital eta
IKTen Zuzendaria



3

EROSKI konpromisoa

3 EROSKI konpromisoa

“2021. urtea lan handiko urtea izan da. Ahalegin handia egin dugu bereizten gaituena garatzeko; Osasunaren eta Jasangarritasunaren aldeko gure 10 konpromisoak.”



Alejandro Martínez Berriochoa
Osasun eta
Jasangarritasuneko
Zuzendaria



► Aurrera goaz Osasunaren eta Jasangarritasunaren aldeko gure 10 konpromisoetan

-  **Elikadura segurtasunaren alde dihardugu**
-  **Elikadura orekatua sustatzen dugu**
-  **Haurren obesitatea prebenitzen dugu**
-  **Nutrizio behar zehatzei erreparatzen diegu**
-  **Kontsumo arduratsua sustatzen dugu**
-  **Bertako produktu gehiago eskaintzen ditugu**
-  **Osasuntsu jaten laguntzen dugu, prezio onean**
-  **Entzuten dugu, argi eta gardentasunez**
-  **Geure burua zaintzen dugu, langile gisa**
-  **Bizimodu osasungarriagoa sustatzen dugu**



Osasunaren inguruko
informazio gehiago **IEFE-n**



3.1 Konpromisoa kalitatearekin eta osasunarekin

EROSKI Taldearen Kalitatea Kudeatzeko Eredua funtsezko prozesua da produktu seguru bat bermatzeko bezeroarentzat. Arau, prozesu, tresna eta definizio multzo batek egituratzen du, eta horiek denek, elkarri

lotuta balio kate osoan, bermatzen dute merkaturatzen ditugun produktuek berme guztiak betetzen dituztela elikadura segurtasunaren alorrean.



2021ean, egin ditugu:

938

kalitate auditoria gure salmenta puntuetan eta plataforma logistikoetan.

343

auditoria marka propioko hornitzaileen ekoizpen plantetan.

46

auditoria beste marka batzuen hornitzaileen ekoizpen plantetan.



Guztira egin ditugu

22.906
kontrol analitiko

kimikoak, mikrobiologikoak eta genetikoak

3.1.1 Produktuaren nutrizio hobekuntza

EROSKik elikadura segurtasunarekin duen konpromisoa elikagaien kalitatea egiaztatzen harago doa, eta haien osagaiak aztertzen ditugu, **haien profil nutrizionala hobetzeko**.

2021ean, amaitutzat eman dugu marka propioko gure produktu guztietatik palma gantza kentzeko prozesua. Guztira, 308 produktu birformulatu ditugu alternatiba osasungarriagoen bidez; hala nola ekilore olioaren erabilera.



Nutrizioaren ikuspegitik hobetutako produktuen aukera osoa honako hauek osatuta dago:



106

koipe gutxiko produktu



30

gatz gutxiko produktu



66

azukre gutxiko produktu



103

zuntz askoko produktu

3.1.2 Nutrizio orekari buruzko informazioa /Nutri Score

Elikadura ohitura arduratsu eta osasuntsuak sustatzeko gure helburua betetze aldera, 2018an aitzindari izan ginen Nutri-Score etiketa sartzen marka propioko gure produktuetan.

Hiru urte geroago, Espainiako estatuko lehenengo banaketa enpresa gara Nutri-Score etiketa jartzen marka propioko gure produktu guztietan.

Gainera, aurtan argitaratu egin dugu duela bi urte baino gehiago etiketa nutrizionala abian jarri genuenetik egin dugun analisia. Analisi horretan, aztertu dugu zer bilakaera izan duten 1.300 salmenta

puntutan baino gehiagotan eskainitako 2.000 produktu ingururen salmentek, eta egiaztatu dugu Nutri-Score etiketak eragin positiboa duela elikadura ontziratu osasuntsuagoa aukeratzeko orduan, kalterik egin gabe produktu freskoen kategoriei.

Produktu kategoria baten barruan, kontsumitzaileak osasuntsuena aukeratzeko

Zer da Nutri-Score?

Nutri-Score etiketak Kontsumo Ministerioaren onespena du eta elikagai ontziratuak sailkatzen dituen grafiko edo semaforo bat da, bost kolorei lotutako bost letraren bidez, nutrizio osaeraren arabera: A (berde iluna) eta B (berde argia) letrak elikagai osasungarrienei dagozkie; D (laranja) eta E (gorria) letrak nutrizio kalitate txikiagoko elikagaiei; C (horia) letra kalitate ertaineko elikagaiei. Produktu bakoitzaren letra zehazteko, literatura zientifikoak berretsitako algoritmo bat erabiltzen da, negatibotzat hartzen duena elikagaien edukia kaloria, azukre, gatz eta gantz aseetan, eta positibotzat hartzen duena haien zuntz, proteina, fruta, barazki, fruitu lehor, lekale eta oliba olio kantitatea, beti produktuaren 100 gramo bakoitzeko.



3.1.3 CONSUMER EROSKI informazio proiektua

Elikadurari buruzko informazioa zabaltzeko gure ahaleginean, 1974an CONSUMER EROSKI jarri genuen abian, kontsumitzaileei modu independente, egiazko, atsegin eta praktikoa zuzendutako informazio proiektua, eguneroko bizitzako ohiturei buruzkoa.

Argitalpen horren bidez (euskaraz, katalanez, galegoz eta gaztelaniaz), milioika pertsonarengana heltzen gara (50 milioi bisita edizio digitalean). 2021ean, 317.025 pertsonak jaso dute hilerro inprimatutako bertsioa.

2021ean argitaratutako hamaika zenbakien bidez, hainbat gairi buruzko informazio xehea jaso dute gure kontsumitzaileek: elikadura, elikadura segurtasuna, osasuna, ingurumena, elkartasuna, maskotak, haurrak edo aurrezpena eta etxeko ekonomia.

Zehazki, 2021ean, CONSUMER EROSKI haurren obesitateaz arduratu da bereziki, eta azterlan bat egin du datu publikoetatik abiatuta jakiteko zertan den egoera Espainiako Estatuko haurren artean.

Txostenaren ondorioak

- **Murtzia (% 40), Kanariak (% 35,5) eta Andaluzia (% 33,4)** dira haurren gehiegizko pisuaren eta obesitatearen tasa handiena duten erkidegoak.
- **Nafarroan**, aldiz, adingabeen % 1,4k bakarrik du obesitatea eta % 15ek gehiegizko pisua.
- **Euskal Autonomia Erkidegoa eta Errioxa** dira elikadura-ohiturarik onenak lortu dituzten erkidegoak.
- **Nafarroa** nabarmentzen da gozokiak eta freskagarrien kontsumo baxuagatik, eta **Asturias eta Aragoi**, eguneko fruta-kontsumoaren batez bestekoa gaitziteagatik.
- Beste muturrean, **Kanariak, Balearrak eta Katalunia** dira fruta gutxien kontsumitzen duten eskualdeak.
- **Andaluzia, Gaztela-Mantxa eta Extremadura** nabarmentzen dira gozoki eta freskagarri ugari hartzeagatik.

Aldizkaria 4 hizkuntzatan argitaratzen da: gaztelania, galegoa, euskara eta katalana; 317.025 irakurle hilean eta 50 milioi online bisita.

Eskura ezazu txostena



3.1.4 Ohitura osasungarriak haurtzarotik hasita

EROSKlrentzat, hezkuntza funtsezko tresna da aldaketa bultzatzeko elikadura arduratsu eta osasungarriago baterantz. Horregatik, EROSKI formakuntza tresnak jartzen ditu haurren eskura, modu dibertigarri batean ohartarazteko elikaduraren alorrean dituzten ohituren inguruan.

Horrela sortu zen EROSKI Taldearen Elikadura eta Ohitura Osasungarrien Hezkuntza Programa (EOOHP), haurren artean ohitura osasungarriak sustatzeko helburuarekin.



2021/2022 ikasturtean

Elikadura eta Ohitura Osasungarrien Hezkuntza Programetan
1.616 ikastetxetako 129.839 ikaslek parte hartu dute



Imagine Food

- Imagine Food lehiaketaren laugarren edizioa, helburu duena ikasleak ohartaraztea dieta orekatuaren garrantziaz. 6-12 urteko neska-mutikoei dieta osasungarriei buruzko beren marrazkiak bidali zituzten, Basque Culinary Centerreko epaimahai batek balora zitzan.



Tri Bo, Tri Sa (CAPRABO)

Programa hau 2008an jarri zen martxan eta formatu presentzialean eta online formatuan eskaintzen da. Helburua da haurrei erakustea (2-3 urtekoak barne) modu osasuntsuan elikatzen eta elikadura ohitura orekatuak hartzen, nutrizioan aditua den profesional baten laguntzaz, baita hainbat gairen inguruan ohartaraztea ere: hala nola garapen jasangarria, kontsumo arduratsua edo zero gosea.



VEGALSA-EROSKI hezkuntza programak

Hainbat programa barne hartzen ditu:

- **Matematika zure saltokian:** erosketa egiten ikasteko.
- **Arindu zure bizitza:** Obesitatea Aztertzeako Espainiako Elkarte (SEEDO) buru duen programa.
- **Gozo jan, Osasuntsu bizi:** Obesitatea Prebenitzeko estatu mailako proiektuaren baitan kokatua.

3.2 Konpromisoa ingurumen jasangarritasunarekin

Gizarteak uste du premiazkoa dela irtenbideak aurkitzea ingurumen arazoentzat. Eskaera horri erantzuteko, EROSKI lanean ari da arlo honetan aplikagarria den legeria betetze aldera, bere jardun eremu guztietan. Dena dela, horrez gainera, ahalegin berezi bat egiten du inpaktu negatibo nagusiak hobeto identifikatu, ezaugarritu eta minimizatzeko, baita gure jarduerak ingurumenean dituen inpaktu positiboak optimizatzeko ere.

3.2.1 EROSKI 2050: karbono neutraltasuna

2021ean biderkatu egin dugu gure ahalegina, konpromiso berri eta handinahi batekin, klima aldaketaren aurkako borrokarekin. **EROSKI konpromisoa hartu dugu 2050ean berotegi efektuko gasetan zero emisio izango dituen enpresa izateko.**

EROSKI bat egin du Europar Batasunaren Elikadura arloko Marketin eta Negozioen Praktikarako Portaera Arduratsuaren Kodearekin, eta kode horren baitan kokatzen da konpromiso hori, Osasunaren eta Jasangarritasunaren alde 2018an ezarri genituen 10 konpromisoak indartzera datorrena. Besteak beste:

- 1 **% 25 murriztea 2025erako gure CO₂ isuriak**, gure ekipoen eta prozesuen eraginkortasuna hobetuz eta energia berriztagarrien erabilera areagotuz.
- 2 **% 20 txikitzea 2025erako merkaturatzen ditugun plastiko konbentzionaleko ontzi tonak**, ingurune itsastar eta lehortarraren kutsadura murrizte aldera.
- 3 Gure prozesuak orientatzea **zero hondakin** printzipiorantz, ingurumen inpaktu eta inpaktu sozial positibo bat sortzeko.
- 4 Gure prozesuak orientatzea ekonomia zirkularreko eredu baterantz, gure ontzien ekodiseinuaren bidez, **% 100 birziklagarriak izan daitezen 2025ean**.
- 5 Ingurumenarekin eta animaliekin errespetutsuak diren produktuak indartzea, **ingurumen ziurtagiriak eskatuz EROSKI Natur produktuetan**, produktu ekologikoen edo animalia ongizate zigorla dutenen gama zabalduz, eta hornitzaileen prozesuen ingurumen hobekuntza bultzatuz.



Sostengarritasunaren inguruko informazio gehiago IEFEE-n



Eredu energetiko berria saltoki fisikoetan

2021eko azaroan, EROSKI Lakua-Arriaga supermerkatua inauguratu zuen, Taldearen ikur nagusia saltoki fisiko eredu berri bateranzko trantsizio energetikoan, klima aldaketaren erronkei aurre egiteko.

- LEED Gold ziurtagirien araberrako eraikuntza
- Hozgarri naturalen erabilera
- LED argiteria adimenduna
- % 50eko murrizketa gastu energetikoan
- Domotika, energia kontsumo eraginkorrerako
- Energia % 100 berriztagarria
- Hondakinen % 80tik gora balorizatuak
- Hondakinen kudeaketa zirkularra: gailu elektriko eta elektroniko, bonbilla, pila eta kafe kapsuletarako edukiontzia



“EROSKIren energia eredu berriaren helburua da ikuspegi integral batetik garatzea ekonomia zirkularra, kontsumoak eta plastikoaren erabilera murriztetik hasi eta ibilgailu elektrikoaren bidez mugikortasun jasangarriaren sustapeneraino. 2012an hasitako prozesuaren bilakaera naturala da.”



Javier España
EROSKIko Garapen Zuzendaria





3.2.2 Konpromisoa jatorritik: produktu jasangarriagoak

EROSKIn elkarlanean ari gara enpresa hornitzaile arduratsuekin, garapen jasangarriarekiko gure konpromisoa partekatzen dutenak, eta helburutzat

dugu ingurumen inpaktua murriztea gure prozesu guztietan: produktuen ekoizpenean, saltokiko operazioetan, eraldaketan eta manipulazioan.

• Produktuen jatorri jasangarriko bermea:



1.600 produktu ekologiko baino gehiago



461 arrain mostradore eta 8 plataforma logistiko, MSC eta GGN ziurtagiriek.



Gure kontserbako atunaren % 100 bat dator ISSF fundazioaren (International Seafood Sustainability Foundation) printzipioekin.



430 EROSKI NATUR produktu, besteak beste GlobalG.A.P., Ekoizpen Integratu edo animalia ongizate ziurtagiriek.



17 Belle Natural produktu, ECOCERTen COSMOS Natural ziurtagiriarekin.



410 produktu, FSC®, PEFC, Oeko-tex edo SFI zigiluekin.

Ontzi onena produktu onenarentzat

Plastikoek eragindako kutsadurak gizartean sortzen duen kezka jakitun, EROSKI hobetu egin ditugu marka propioko gure produktuen ontziak.

Bat egin dugu **Basque Ecodesign Center** egitasmoarekin

Erabaki dugu **ekodiseinu bidez sortzea gure ontzien % 100 2025erako.**

Abian jarri dugu **marka propioko 3.500 ontzi baino gehiagoren analisia**

Gure marka propioko produktuen **100 ontzi baino gehiago** ditugu ekodiseinatuta



ekodiseinu berritzaileak garatzeko, elkarlanean UPV/EHUrekin, IHOBE Ingurumen Kudeaketako Sozietate Publikoarekin eta nazioartean liderrak diren zentroekin.



% 100 birziklagarriak izateko eta % 20 murrizteko merkaturatutako plastiko tonak.



hobekuntzak identifikatu eta aplikatzeko, **gure plastiko aztarna murrizteari begira.**



73 ontzi hobetu ditugu 2021ean

Horrela, plastiko konbentzionalako 85 tona murriztuko dira urtean.

493 tona

Plastiko konbentzionalaren murrizketa guztira 2021ean.

100 ontzi baino gehiago ekodiseinu bidez sortuak

Ekodiseinu bidez sortutako 100 ontzi ditugu marka propioko gure produktuetan, eta hobetutako 73 ontzi 2021ean. **Horri esker, 85 tona plastiko konbentzional murrizten dugu urtero.**



EROSKI esne kondentsatua

Ontzi birziklagarriagoa, produktuaren hustuketa gaitasuna hobetzearen eta **PET monogerruza gardeneko botila** erabiltzearen ondorioz.



EROSKI Natur BIO behi hanburgesa

% 80 plastiko gutxiago duen ontzia, produktuaren ontzi estandarri dagokionez.

3.2.3 Hondakinen kudeaketa zirkularra

EROSKIk ekonomia zirkularrerantz bideratzen ditu bere prozesuak, hondakinen sorkuntza prebenitzeko estrategien bidez:



Saihesten da alferrik galtzea
145 milioi bazkari

deskontu handiak eginez iraungitze datatik hurbil dauden produktuetan edo elikagaiak dohaintzan emanez gizarte erakundeei



Aurrezten dira
36 tona paper
(2018ari dagokionez)

ticket digitalaren sustapenaren bidez



Aurrezten dira
1.000 tona

plastiko konbentzional gutxiago
kutxetako poltsetan
(2018ari dagokionez)



6.700 tona
hondakin organiko

berrerabiliak

animalia pentsuak eta irinak egiteko, hondakinak beste ekoizpen prozesu batzuetan erabiltzeko birziklapen eta berrerabilpen estratēgiei esker



43.918 tona
baino gehiago

birziklatuak edo balorizatuak



111 tona

berreskuratutako kafe kapsuletan

Gainera, EROSKI honako hauen partaide da:

- **Ekonomia zirkularrekin eta elikagai hondakinak minimizatzearekin lotutako proiektu berritzaileak.**
Diseinua: proiektuen logoak jarri haien azalpenaren ondoan.

- Foodrus: Horizon 2020 proiektua, hondakinak murrizteko eta nekazaritza-elikadura katean galerak ekiditeko, lankidetzan oinarritutako sistema zirkular berri baten bidez.

- ZeroWaste: Green Deal proiektua, bederatzi *Systemic Innovation Living Labs*(SILLs) inplementatzeko balio katean, ingurumen eta ekonomia jasangarritasuna lortzeko epe luzera.

FOODRUS

ZEROW
innovations for zero food waste

Kontzientziazioa

- 2021ean, ingurumen boluntariotzako programetan parte hartu dugu; hala nola WWFrekin batera eginko 3 ekintzak.
- Planetaren ordua: Nazio Batuek sustatutako itzalaldi sinbolikoa, munduko egitasmorik handiena ingurumenaren defentsan.



Parte hartzaileak EROSKIk WWFrekin batera antolatutako boluntarioen jardunaldian, Elgoibarren (Gipuzkoa)




Tokiko ingurumenarekiko konpromisoaren harira informazio gehiago **IEFE-n**



3.3 Konpromisoa tokiko ingurunearekin

3.3.1 Tokiko ingurunearekin batera hazten gara

EROSKIn pentsatzen dugunez, elikadura jasangarria izateko, bertako produktuek eskaintzen dituzten aukera ugariak aprobetxatu behar dira, hiru ikuspegitatik:



Ingurumena: garraiorako baliabide gutxiago erabiltzeko aukera ematen duelako, bai eta bertako barietateak erabiltzeko aukera ere, ekoizpen masiboaren joera homogeneousatzailearen aurrean iraungo dutela bermatzeko

Gizartea: komunitate osoaren ongizatean eragina duten hurbileko aberastasuna eta enplegua sortuz

Kultura: errezeta tradizionalak egiteko moduak eta elikadura osasungarri, zentzudun eta sustraituaren kultura gastronomikoa zainduz.

EROSKik eragile proaktiboa izan nahi du bertako hornitzaileen hobekuntzan, eta banatzaile liderra leku bakoitzeko produktuen sustapenean. Gure ustez, funtsezkoa da gizartearen inplikatzeari, bai sortzen dugun enpleguaren ikuspegitik, bai herritarrak kezkatzen dituzten kausekiko elkartasunaren ikuspegitik.

2021ean tokiko produktua garatu dugu gure marka propioaren bidez, ekoizle txikien erreferentziak ugaritu ditugu, eta konfiantzazko harremanak sortu ditugu instituziotako eragileekin //



Asun Bastida
EROSKiko Tokiko Produktuaren Zuzendari Komertziala.



Hornitzaile komertzialen eta tokiko ekoizle txikien kopurua autonomia erkidegoka, 2021ean

Guztira:

3.599


Hornitzaile komertzialak

2.152

Tokiko ekoizle txikiak

● Hornitzaile komertzialak

● Tokiko ekoizle txikiak




3.3.2 Konpromisoa ekoizleekin

EROSKIk tokian tokiko nekazaritzako elikagaien ETEekin jarduteko hiru konpromiso nagusien inguruan egituratzen du hornitzaileekiko lankidetzak. Hauek dira konpromiso horiek:

- **Ekoizpen enpresa txikien produktuak kontsumitzaileei hurbiltzea**
- **Kudeaketa komertziala mikroenpresa, ETE eta kooperatibetara egokitzea**
- **Enpresak profesionalizatzeko eta hazteko planetan laguntzea.**

2021ean tokiko erreferentzien 1.797 alta berri erregistratu ditugu; horietatik 944 produktu freskoak dira, eta 853 elikagaiak. Tokiko ekoizle txikien 21.152 produktu, guztira.

Alta berri horiei esker, 22 milioi euro baino gehiagoko salmentak lortu dira. Gainera, erakunde sektorialekin ditugun lankidetzak hitzarmenak berritzen eta berriak sortzen jarraitzen dugu, tokiko elikagaiak, jatorri deitua babestuak (JDB) eta adierazpen geografiko babestuak (AGB) sustatzeko.



Barazki Plana

Era berean, Barazki Plana: Dibertsifikazio Kolaboratibo Jasangarria proiektuari jarraipena eman diogu. Proiektu hori Eusko Jaurlaritzak eta Landa Garapeneko Europako Nekazaritza Funtzak (FEADER) elkarrekin finantzatzen dute, eta Euskadiko baratze ustiatzeen errentagarritasuna hobetzea du helburu, dibertsifikazioaren eta labore berrien erabilera jasangarriaren bidez.



3.3.3 Bertako produktuari laguntzea eta sustatzea

EROSKiren helburua bertako produktuak sustatzea da, eta, horren barruan, balio kulturalak, gastronomikoak eta sukaldaritzakoak zabaltzeko eta sustatzeko ere lan egiten du.

2021ean, akordioa sinatu dugu Aragoiko Gobernuarekin eta Aragoiko Elikagaien Industrien Elkartearekin, bertako nekazaritzako elikagaiak sustatzeko eta garatzeko. Akordioari jarraiki, EROSKik Aragoiko nekazaritzako elikagaien ekoizleen produktu gehiago erosiko dizkie gure kalitate baldintzak betetzeko gaitasuna duten enpresei. Proiektu horri esker, EROSKik Aragoiko nekazaritzako elikagaien

130 ekoizle txikirekin kolaboratuko du. Gainera, Aragoiko Elikadura Klusterrarekin lankidetzan ari gara; kluster horren helburua da berrikuntza sustatzea autonomia erkidegoko nekazaritzako elikagaien industrietan. Bestalde, nekazaritzako elikagaien balioa azpimarratzen duen Círculo Agroalimentario Comparte el Secreto elkarteko kide gara.

Bertako elikagaien kontsumoa sustatzea gure kultura gastronomikoa, gure ekonomia eta gure paisaiak mantentzeko bide bat da

3.3.4 Gure ingurunearen mesedetan

Tokian tokiko ekimenak sustatuz, EROSKI gure merkataritza saretik gertu dauden pertsonen ongizatea bultzatu nahi du, eta hurbileko kultura eta tradizioak balioetsi.

Tokian tokiko hizkuntzen sustapena eta zabalkundea

EROSKIn, tokian tokiko hizkuntzak gure ingurune komunitateen kultura ondarearen funtsezko osagaiak direla uste dugu, eta, horregatik, etengabe lanean ari gara horiek sustatzeko eta zabaltzeko.



► Durangoko Azoka

2021ean, beste 5 urterako lankidetzak hitzarmena sinatu dugu, euskaraz egindako kulturaren hitzordu nagusiarekin. EROSKI hamarkadak daramatza Durangoko Azokarekin lankidetzan.

► Ikastolen festak

EROSKI Fundazioak Ibilaldia, Araba Euskaraz, Kilometroak eta Nafarroa Oinezen parte hartzen du. Ikastolen festa horietan, 6.000 pertsona baino gehiagok kolaboratu izan dute Elikadura Eskolak ikasleengan eta familiengan elikadura ohitura osasungarriak sustatzeko egiten dituen ekitaldietan.

► Euskara Plana

Ingurune elebidunak lortzeko, eta erakundean euskararen erabilera sustatzeko.



► Día das Letras Galegas

Galizian ere bertako kultura eta hizkuntza balioesten ditugu, Galiziako gizartearekin lotura estua duten ekimen guztiekin bat eginez. Aurreko urteetan bezala, 2021ean ere Día das Letras Galegas babestu dugu. Ekintza horiekin batera, CONSUMER EROSKI aldizkaria gaztelaniaz, euskaraz, galegoz eta katalanez irakurri ahal izateko ahalegina egiten dugu etengabe.

Aisialdia eta kultura

EROSKIn, kultura kontsumitzaileengana hurbiltzen saiatzen gara, lan egiten dugun eremuetako kultura eta aisialdi jardueretan lagunduz.



► Musikaire Elorrion

► Artxandako igoera Bilbon

► Akordia Araski Emakumezkoen Saskibaloia Elkartearekin




► XACOBEO 2021

10.000 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten EROSKI-k babesten duen ibilbide historiko honetan 2020ko hutsunea eta gero

► Galiziako jaialdiei kultura babesa:

- Resurrection Fest (Viveiro).
- Morriña Fest (Culleredo).
- Caudal Fest (Lugo).



► Del Guell a Lluç a Peu igoera



► **Parte hartzea** "Alimentar Barcelona Ciudad, abastecimiento y salud" erakusketan. Bartzelonako Historia Museoak (MUHBA) antolatutako erakusketa horretan, protagonismoa izan zuen hirian, 1959an, orduko Antoni Maria Claret etorbidean ireki zen lehen CAPRABO supermerkatuak.



Gizartearekiko
konpromisoaren inguruko
informazio gehiago **IEFE-n**



3.4 Konpromisoa gizartearekin

3.4.1 Gizarte ekarpena

EROSKIn, hasieratik, askotariko gizarte ekintza garatu izan dugu gure balio kooperatiboak aplikatuz, gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa izaten laguntzeko asmoz. Horretarako, langileak inplikatzeko ditugu,

eta, aldi berean, bezeroek tokiko eta nazioko kanpainen eta ekimen sozialen proposamenean eta garapenean parte hartu dezaten bultzatzen dugu.

Gizarte ekintzarako ekarpenen banaketa



10.808.503 €

Elkartasuna eta gizarte ekintza



1.250.800 €

Premia bereziak dituzten familiei eta taldeei laguntzea

13.579.518 €
Ekarpena guztira



1.146.160 €

Kontsumitzailearentzako
prestakuntza eta informazioa



374.055 €

Kultura, aisialdia eta tokiko
ingurunea

3.4.2 Zentimo solidarioak ekimenaren lehen urtea

2021ean finkatu egin dugu 2020ko azaroan abian jarritako dohaintza programa iraunkorra, gure dendetan egunero-egunero bezeroen elkartasuna bideratzeko. Programa horren bidez, EROSKIren eta CAPRABOren bezeroek dohaintza txiki bat egin dezakete une bakoitzean martxan dagoen ongintzako kausaren alde, erosketa txartelaz edo mugikorrak ordaintzen dutenean. Ekarpena borondatezkoa eta isilpekoa da beti, eta zenbatekoak hauek dira: 10 zentimoko kopuru sinboliko txiki bat, 5 eurotik 30era bitarteko erosketetarako, eta 20 zentimo, 30 eurotik gorako erosketetarako. Gainera, EROSKI ere ekarpena egiten du, bezeroena osatzeko.

Zentimo Solidarioen programak hainbat gizarte eta ingurumen kausari lagundu die 2021ean



- **Bezeroek 2 milioi eurotik gora eman dituzte dohaintzan**
- **Bezeroek 14 milioi dohaintza egin dituzte**
- **368.000 pertsonari lagundu diegu**
- **260 erakunderekin lankidetzan aritu gara**



3.4.3 2022ko deialdi solidarioa

2021ean ere, bezeroei, langileei eta gizarteari entzuteko ekintzak egin ditugu EROSKIn, eta 12.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute, 2022eko kausa solidarioak aukeratzeko.

Gainera, deialdia egin diegu GKEei, 2022an Zentimo Solidarioen programaren bidez finantzatzeko proiektuak aurkezteko eta Zero Hondakin programako dohaintza hartzaile gisa inskribatzeko.

Guztira 289 erakundek parte hartu dute, eta 450 proiektu baino gehiago aurkeztu dituzte. Erantzun horiek oinarri hartuta, EROSKIk 2022ko Zentimo Solidarioen programako Elkartasun Plana egin du. 2022ko urtarrilean argitaratu du plana, eta, besteak beste, egoera ahulean dauden haurrei, minbiziari, gaixotasun arraroei eta osasun mentalari erreparatuko die.

Beste kanpaina batzuk



Kanpainak elikagaien bankuekin

3 milioi otordu



La Palmako sumendiak eragin dien pertsonen aldeko larrialdi kanpaina

435.000 euro

Familiei laguntzea

EROSKIk familia ugari laguntzeko lankidetzak hitzarmenak ditu hainbat erakunderekin, hala nola Hirukiderekin, Fanoc-ekin eta Familia XLrekin. Gainera, familia ugarien behar bereziak aintzat hartuta, abantaila bereziak eskaintzen dizkiegu gure fidelizazio txartelen bitartez, bai eta Galiziako Xuntaren Benvida Tarxetaren bidez VEGALSA-EROSKIn edo CAPRABOren Bienvenido Bebé programaren bidez. Hala, 2021ean, 20.000 familia ugarik baino gehiagok 1,1 milioi euro baino gehiago aurreztu dituzte.

Neurri horien osagarri gisa, CAPRABOk Bienvenida Matrona online tresna dauka, haurdunaldian, erditzean eta haurtxoaren bizitzako lehen urteetan gurasoak gehien kezkatzen dituzten galderak erantzuteko.

Ekimenak FAME (Espainiako Emaginaren Elkartearen Federazioa), AEM (Espainiako Emaginaren Elkartea) eta J. Mateu Sancho pediatriaren babesa du.



4

EROSKI pertsonak: konpromisorako kultura

4 EROSKI pertsonak: konpromisorako kultura

EROSKiren helburua da bezeroei zerbitzurik eta produkturik onenak eskaintzea, Osasunaren eta Jasangarritasunaren aldeko 10 Konpromisoen bidez.

Konpromiso horiek betetzeko, gure balio bereizgarrian oinarritzen gara: EROSKI egiten dugun pertsonengan. Gure lan egiteko modua funtsezko 10 baliotan oinarritzen da:

Gure lanaren funtsezko 10 balioak

1

Parte hartzea
sustatzen dugu

2

Garapen pertsonala eta profesionala sustatzen ditugu, ezagutzak, jarrerak etatrebetasunak hobetuz.

3

Kide izatearen sentimendua:
EROSKiko kide izateaz harro gaude, eta hobekuntza arloak bilatzen ditugu.

4

Informazioa eta komunikazioa sustatzen ditugu erakundearen barruan, bi noranzkoetan.

5

Barne elkartasunari esker, **kolektiboa indibidualari** nagusitzen zaio, eta epe luzea epe laburrari.

6

Dinamismoa aldaketara egokitzeko eta berrikuntza bultzatzeko.

7

Bezeroa aintzat hartzen dugu, haren beharretara egokitzeko eta aurrea hartzeko.

8

Lan baldintzak etengabe hobetzen ditugu, **bizi kalitate egokia** bermatzeko.

9

Kanpoko elkartasuna, gizarteari ematen diguna itzultzeko.

10

Langileek **profesionalizazio mailarik handiena** lortu nahi dugu.



EROSKI Pertsonen inguruko datu gehiago **IEFE-n**



► Zenbat pertsonak egiten dugu EROSKI?



► Zenbat pertsona batu dira gure proiektura, 2021ean?



1.851
Sarrerak guztira



629
Bazkide langileak

“ Talde trinkoa eratzen dugu. Batzuetan, bezeroen psikologoak garela esaten dugu. Eguna maitasunez, arretaz eta barre eginez alaitzen diedanean, asebeteta sentitzen naiz ”

“ EROSKI leku ona da pertsona eta profesional gisa eboluzionatzeko. Niri, bizitzako proiektuei ekiteko aukera eman dit ”



Mari Carmen Centeno
Bazkidea 2021ean.
EROSKI/City
Etxebarri




Koldo Cebrián
Bazkidea 2021ean.
EROSKI/Center
Tellagorri – Bilbo



4.1 Talentua garatzea

Zuzendaritza Garapeneko eta Talentuaren Kudeaketako gure ereduari esker, EROSKI pertsona eta talde egokiak dauzka eta gaitasun egokiak bermatzen ditu, egungo eta etorkizuneko estrategia betetzeko, eta, talentua zuzendaritza posizioetan txertatuz eta garatuz, lehiakortasuna bermatzeko.

Potentziala duten kudeatzaileak etorkizunean zuzendaritza postuak betetzeko ezaugarriak dituzten jarduneko pertsonak dira. Balorazio hori kontraste prozesu ebolutibo baten ondoren egiten da, hazteko interesa eta konpromisoa dutela egiaztatu ondoren. Pertsona horiekin kudeaketa bereizia egiten dugu, haien potentziala kontuan hartuta, zuzendaritza postuak betetzeko benetako aukerak izan ditzaten.



176.297

Prestakuntza orduak
(2020an baino %60 gehiago)

Urtez urte, EROSKIren konpromisoa da gizarteari kalitatezko enplegu iturri bat eskaintzea, langileek garapen profesionalerako baldintza ezin hobeak izan ditzaten



1.500.000 €

prestakuntzarako

Gure salmenta puntuen testuinguruan, dendan produktu freskoekin lan egiten duten profesionalentzako eskolak egiten jarraitu dugu 2021ean, produktu freskoen sekzio guztietan. Era berean, Premium Eskolaren eredu sortu dugu, profil jakin batzuk kudeaketa maila handiagoetara eramateko. Eskoletako garapen ikuspegi horren osagarri gisa, ofizioei, tratu ereduari eta bezeroaren orientazioari buruzko bestelako trebakuntza ekintzak egin dira.

"Data Analytics" esparruan prestakuntza eta ikerketa indartzeko EROSKI eta Mondragon Unibertsitatearen arteko hitzarmena sinatzea. Iñigo Eizaguirre, EROSKIko Gizarte Arloko Zuzendaria (ezk.) eta Lander Beloki, MUko Enpresagintza Fakultateko dekanoa (esk.)



4.2 Berdintasuna eta aniztasuna

EROSKIn, berdintasuna erakundearen kudeaketako balioztat hartzen dugu, eta diskriminaziorik ezaren printzipioari jarraitzen diogu, generoari, arrazari, sexu orientazioari, erlijio sinesmenei, iritzi politikoei, nazionalitateari, gizarte jatorriari, desgaitasunari edo diskriminazioa eragin dezakeen beste edozer ezaugarri dagokionez.

2005ean, Berdintasunerako Batzordea sortu genuen; haren ardura da EROSKIren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Diagnostikoa eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana egitea. Gainera, Berdintasun Behatokiak printzipio hori erakunde osoan betetzen dela zaintzen du.



EROSKiko plantilla:

- % 77 emakumeak
- Erantzukizuneko lanpostuen % 74 emakumeek betetzen dituzte
- Kontseilu Errektorea, EROSKIren gobernu organo gorena, parekidea da

“EROSKIn, hasieratik, berdintasunaren eta askotarikotasunaren balioak txertatzen ditugu. 2021ean, emakume gehiago sartu dira zuzendaritzako eta aurrezuzendaritzako postuetan”



Marta Carazo
EROSKIren Berdintasun
Behatokiako arduraduna



Antonia Jimenez flamenko jotzaile eta gitarristak, Patricia Sornosa bakarriketagile eta aktore komikoak eta Antonio Pampliega idazle eta gerra erreportariak parte hartu zuten 2021eko C6mplices jardunaldian.

4.3 Kontziliazioa

EROSKik beste baimen batzuk ditu legeek ezartzen dituztenez gain, eta bizitza pertsonala eta profesionala orekatzea ahalbidetzen duten laneko inguruneak eta ordutegiak bultzatzen ditu.

Era berean, EROSKik langileen beste proiektu pertsonal batzuen berezitasunak ere aintzat hartzen ditu, eta lanaldia murrizteko aukera ematen die, murrizketa aldia amaitutakoan lanaldi osoa berreskuratzeko eskubideari eutsita. Bestela, borondatezko aldi baterako eszedentziak ematen ditu, lanpostuak gordeta, GKEekin lankidetzan proiektuak edo garapen pertsonaleko beste plan batzuk gauzatzeko.

2021ean:

3.948 pertsonak baliatu dute lanaldi murrizketa edo eszedentzia. Hori plantillaren % 14a da.

5

Finantza informazioa

5 Finantza informazioa

 Urteko finantza-
txostena hemen



- 2021eko txertaketa kanpainak elikadura negozioei loturiko kontsumo ohiturak berreskuratzen lagundu bazuen ere, azken olatuek eragotzi egin dute jarduera erabat normalizatua berreskuratzea.
- Aisialdiari, kirolari eta bidaiei lotutako negozioak ez dira bueltatu pandemia aurreko normaltasunera, murrizketak direla eta.
- Hobekuntza txiki bat ikusten da emaitza operatiboan, 2019ko ekitaldiarekin alderatuta. Dena den, energiaren prezioen gorakadak moteldu egin du hobekuntza, kostuen hazkunde oso handia ezin baita osorik merkatuko prezioetara eraman.
- Kataluniari eta Balearrei lotutako negozioen kapitalean EPCG bazkidea sartzeari esker, Taldearen proiektua indartu egin da bi eremu horietan.
- Zorra 450 milioi euro baino gehiago murriztu da, eta, horri esker, palanka efektu finantzarioaren arrazoizko mailatan gaude.

Sortutako eta banatutako balio ekonomiko zuzena (milaka eurotan)	2021	2020	urtea
Sarrera arruntak	4.791.772	5.051.067	4.835.650
Banaketako salmenta garbiak	4.541.380	4.807.439	4.584.227
Ibilgetuaren salmentatik etekinik ez duten beste sarrera batzuk	250.409	243.628	251.423
Etekin operatiboa (narriaduren, ibilgetu salmenten emaitzen eta jarduera ez-korronteen aurretik)	185.475	252.411	193.840
Narriadura, ibilgetu salmenten emaitzak eta aktibo ez-korronteak	-63.913	-198.963	-162.602
Finantzarioen eta zergen aurretiko etekinak	121.562	53.448	31.238
Finantza emaitza	33.147	-104.503	57.526
Parte hartzea inbertsioen etekin/galeretan, partaidetza metodoa aplikatuta	221	232	1.436
Mozkinen gaineko zergak	-50.316	-26.740	-45.028
Ekitaldiko emaitza	104.614	-77.562	45.173

Balantze kontsolidatu sinplifikatua

AKTIBOA (milaka eurotan)	2022/01/31	2021/01/31
Ibilgetu materiala eta higiezina	1.996.974	2.082.111
Merkataritza funtsa eta beste aktibo ukiezin batzuk	845.326	885.280
Finantza aktiboak	189.923	208.601
Zerga geroratuen aktiboak	284.799	336.915
AKTIBO EZ-KORRONTEAK GUZTIRA	3.317.022	3.512.908
Izakinak	368.275	380.697
Finantza aktiboak	10.713	34.799
Zordun komertzialak eta kobratu beharreko kontuak	158.855	146.890
Irabazien gaineko zergen aktiboak	2.589	2.983
Akziodunak, ordainketa galdatuengatik	2.248	2.061
Eskudirua eta bestelako bitarteko likido baliokideak	213.359	317.563
Salutzeko mantendutako aktibo ez-korronteak	3.385	3.385
AKTIBO KORRONTEAK GUZTIRA	759.424	888.378
Aktiboa guztira:	4.076.446	4.401.287

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA (milaka eurotan)	2022/01/31	2021/01/31
DOMINANTEARI EGOTZITAKO ONDAREA	113.206	59.858
Interes minoritarioak	312.711	59.392
ONDARE GARBIA GUZTIRA	425.921	119.250
Finantza pasiboak	2.286.496	2.580.810
Bestelako pasibo ez-korronteak	35.594	49.267
Zerga geroratuen pasiboak	196.092	212.803
PASIBO EZ-KORRONTEAK GUZTIRA	2.518.181	2.842.880
Finantza pasiboak	139.071	359.105
Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	989.088	1.072.284
Irabazien gaineko zergen pasiboak	4.185	7.767
PASIBO ARRUNTAK GUZTIRA	1.132.344	1.439.156
Ondare garbia eta pasiboa, guztira:	4.076.446	4.401.287

